




ETXEBIZITZAREN PROBLEMATIKAREN PERTZEPTZIOA


Inkesta erantzun duten gazte ia guztien ustez, etxebizitzaren gaia herriak dituen arazoen artean larrienetako bat (% 63,0ren ustez) edo larriena (% 18,1en esanetan) da.

Gaur egun, Segurako herriak dituen arazoen artean, etxebizitzarenak zein toki betetzen duen beren ustez



Zehazkiago, Seguran gazteek etxebizitza bat eskuratzea (erosita edo alokairuan) oso zaila da % 56,9ren iritziz, eta nahiko zaila % 38,4ren ustez.

Seguran, gazteek etxebizitza bat eskuratzea (erosita edo alokairuan)...



XEHETASUN GEHIAGO ETA EMAITZA SAKONAGOAK EZAGUTZEKO, IKERKETAREN EMAITZEN AURKEZPENERA GONBIDATZEN ZAITUGU

EKAINAREN 2AN, OSTEGUNA, ARRATSALDEKO 18:30ean DANON GELAN

Segurako Udala

SEGURAKO GAZTEEN ETXEBIZITZA BEHAR ETA ESPEKTATIBEN AZTERKETAREN EMAITZAK

Segurako Udalak ikerketa bat egin du, helburu nagusia izan duena aztertzea herriko gazteek zer-nolako beharrak dituzten etxebizitzaren inguruan, aurrera begira etxebizitza politika eraginkorra diseinatzeko.

Ikerketa horretan zehar, besteak beste, inkesta bat egin da gazteen artean beren etxebizitza egoera, beharrak eta aurrera begirako asmoak detektatzeko. Orri hauetan inkesta horretatik ateratako emaitza nagusi batzuk aurkezten zaizkizu.


Emaitza guztien aurkezpena egingo da udal ordezkarien eta ikerketa egin duen Aztiker enpresaren artean **ekainaren 2an, osteguna, arratsaldeko 18:30ean Danon Gelan**. Bertaratzera gonbidatzen zaitugu.

DATU TEKNIKOAK

- Teknika:** online zabaldutako inkesta, link ireki bidez (norberak beta)
- Erantzuteko egon diren datak:** 2022ko otsailaren 7a eta 21a bitartean.
- Zabaltzeko modua:** Seguran erroldatutako gazte guztiei bidali zaie gonbidapena gutun bidez etxera, eta Udalaren kanalen bidez ere zabaldu da.
- Nori zuzendua egon da? Unibertsoa.** Seguran bizi diren 20 eta 35 urte bitarteko gazteak. Udal erroldaren arabera, 217 pertsona.
- Zeinek erantzun du? Lagina.** 94 inkesta, unibertsoaren % 43,3.

SEGURAKO 20 ETA 35 URTE ARTEKO GAZTEEN EMANTZIPAZIO-EGOERA

Inkestatuen artean, % 56,4 gurasoekin bizi da eta % 43,6 emantzipatuta dago. Une honetan, % 18,0 etxebizitza baten bila dabil: % 5,2 emantzipatuta egon arren, etxebizitzaz aldatu beharra duten pertsonak dira; eta % 12,8 gaur egun gurasoen etxean bizi dira eta beren lehenengo etxearen bila dabilta. Herriko 217 gazteetara estrapolatuz gero, berrogei pertsona inguru ariko lirateke etxebizitza bila (11 etxebizitza aldatzeko asmotan, eta 28 gurasoen etxetik irtetzeko lehen bizitzaren bila).




- Emantzipatua. Ez du(te) etxebizitzaz aldatu beharrik
- Emantzipatua. Etxebizitzaz aldatu beharra du(te)
- Gurasoekin bizi da. Emantzipatu beharra du
- Gurasoekin bizi da. Ez du emantzipatu beharrik

EMANTZIPATUAK


Dagoeneko emantzipatuta dauden gazteen % 46,3k, independizatu zenean, etxea erosi zuen, eta %40,9 alokairuan jarri zen.

Zein modutan independizatu ziren




Gaur egunean bizi diren etxeari dagokionez, gazte horietatik %62,5ek etxebizitza jabetzan dauka. Errentan % 25,0 bizi da.

Gaur egun duten etxebizitzaren erregimena



Segurako gazteen % 5,2 dagoeneko emantzipatuta dago, baina gaur egun bizi den etxebizitza aldatu beharra dauka. Aldatu behar izateko arrazoi nagusi gisa etxebizitza jabetzan eduki nahi izatea adierazi da (% 56,8k); horrekin lotuta, guztiek behar duten etxebizitza hori jabetzan hartzeko asmoa adierazi dute. Aukera baldin badute, Seguran bizitzen jarraitu nahi dute denek. Hala ere, beren beharretara egokituko litzatekeen etxebizitza bat lortzeko (prezioa eta baldintzak kontuan hartuta), % 65,0ek uste du prest egongo litzatekeela Seguratik joateko, eta % 43,2k Goierritik joateko.


Bere(n) beharretara egokitzen den etxebizitza lortzeko prest egongo litzatekeen Segura eta Goierritik joateko



EMANTZIPATU GABEAK

Gaur egun gurasoekin bizi diren eta emantzipatzeko beharra duten gazteen erdia inguruk 25 eta 29 urte bitarte ditu, eta beste heren batek 30 eta 35 urte artean (gutxiengoa dira 20 eta 24 urte bitartekoak), eta guztiak lanean ari dira (batzuk ikasten ere bai). % 38,2k uste du hemendik urtebetera beren kabuz bizitzen egoteko aukera asko daudela eta beste % 47,3k nahikoa aukera dagoela dio; guztiek etxebizitza jabetzan hartuko lukete. Hamarretik ia bederatzik dio bere bikotekidearekin joango litzatekeela bizitzera, eta beste % 11,1k bakarrik bizitzeko asmoa du.

Konkretuki, bere(n) lehenengo etxebizitza lortuz gero, nola joango litzatekeen hara bizitzera



Erantzun duten ia guztiek diote, aukera izanez gero, Seguran bizitzen jarraitu nahi dutela (% 88,9k, % 5,6nak dio berdin diola edo ez dakielara). Hala ere, beren beharretara egokituko litzatekeen etxebizitza lortzeko Seguratik joateko prest egongo litzateke %74,6, eta "ez dakit/erantzunik ez" aukeran kokatu da beste laurdena. Goierritik joateko prest egongo litzatekeela garbi dutenak gutxiago dira, % 33,7, baina hemen ere inork ez du adierazten ez litzatekenik joango.

Bere(n) beharretara egokitzen den etxebizitza lortzeko (prezio zein baldintzak) prest egongo litzatekeen Segura eta Goierritik joateko

